**Parte III. Ejercicio B**

Eres la técnica/técnico responsable de evaluar los expedientes de las ayudas a inversiones en explotaciones agrícolas de la Diputación Foral de Bizkaia y recibes un expediente de Josune de 32 años que se va a instalar como joven agricultora en el municipio de Morga:

La documentación adjunta al expediente recoge que:

- Josune tiene un plan de empresa aprobado por la comisión GAZTENEK.
- El plan de empresa recoge la creación de una nueva explotación de orientación hortícola siendo la titular única de la misma. No presenta vinculación previa con el sector agrícola y va a cotizar únicamente a la seguridad social agraria.
- El plan de empresa que pretende desarrollar comprende la construcción de 2000 m2 de multitúnel para el cultivo de tomate y lechuga.
- Toda la comercialización se realizará a través de una cooperativa de comercialización de productores y los productos comercializados llevaran la marca Eusko Label.
- Josune ha realizado cursos de formación de horticultura de 50 horas el año 2018.
- El Municipio de Morga está ubicada en zona de agricultura de montaña según la delimitación efectuada en la directiva 75/268/CEE.

Cumple con los requisitos específicos y generales descritos el DF 177/2018 de 18 de diciembre sobre ayudas a inversiones en explotaciones agrícolas y ayudas a la creación de empresas por jóvenes agricultores y agricultoras del Territorio Histórico de Bizkaia (Convocatoria 2019) y solicita la ayuda para la construcción del invernadero para las finalidades de: acondicionamiento terreno, multitúnel, riego, almacén, accesos y electrificación.

1. Se pide calcular la **puntuación desglosada** de los **criterios de valoración** del expediente en lo concerniente a las ayudas de la **medida 4.1** considerando las premisas del enunciado y la siguiente consideración: **1.8 PUNTOS**

    - Los puntos calculados por tipología de inversión del expediente son: 6.25 ptos

2. el **importe de la subvención** (**cálculo desglosado**) correspondiente a la finalidad del multitúnel de lámina de plástico flexible tanto en laterales como cenital, teniendo en cuenta que se adjuntan a la solicitud las siguientes facturas proforma: **1.7 PUNTOS**
    - Suministro de multitúnel: tres facturas proforma con los siguientes importes de base imponible sin IVA: 40.000 €, 35.510 € y 38.510€
    - Mano de obra propia del montaje multitúnel: 3.500 €

3. **De acuerdo al Real Decreto 1075/2014, de 19 de diciembre, sobre la aplicación a partir de 2015 de los pagos directos a la agricultura y a la ganadería y otros regímenes de ayuda: 1,5 PUNTOS**
   - **a.** Enunciar de forma concisa las ayudas a las que tendría acceso Josune, teniendo en cuenta la actividad que va a desarrollar y que le han otorgado derechos de pago básico de la Reserva Nacional por cumplir los requisitos. **1,0 PUNTO**

   - **b.** La campaña siguiente a la instalación adquirirá la explotación del vecino, con la siguiente cabaña ganadera: 8 vacas de carne, 6 terneros machos para engorde, 50 ovejas y 8 cabras. ¿Atendiendo al número de animales, qué ayudas ganaderas asociadas podrá recibir en la solicitud del año que viene? **0,5 PUNTO**

**III. zatia B ariketa**

Bizkaiko Foru Aldundiak nekazaritzako ustiategietan inbertsioak egiteko ematen dituen laguntzen espedienteak ebaluatzeaz arduratzen den teknikaria zara, eta Josuneren espediente bat jaso duzu. Josunek 32 urte ditu eta emakume nekazari gazte gisa aritu nahi du Morga herrian.

Hau jasotzen du espedientearekin batera aurkeztutako dokumentazioak:

- Josunek GAZTENEK batzordeak onartutako enpresa-plan bat du.
- Enpresa-plan horretan, barazkigintzarako ustiategi berri bat sortzea jasotzen da, eta Josune izango da titular bakarra. Aurretiaz ez du loturarik izan nekazaritza sektorearekin, eta nekazarien gizarte-segurantzan baino ez du kotizatuko.
- Garatu nahi duen enpresa-planaren barruan, 2.000 m2-ko multitunel bat eraikitzea jasotzen da, tomatea eta uraza landatzeko.
- Produktu guztiak ekoizleen merkaturatze-kooperatiba baten bidez merkaturatuko dira, eta merkaturatutako produktuek Eusko Label marka izango dute.
- Josunek barazkigintzari buruzko prestakuntza-ikastaroak egin ditu 2018an; guztira, 50 ordu.
- Morga mendi-nekazaritzako alde batean dago, 75/268/EEE Direktibak egiten duen mugapenaren arabera.

Bizkaiko Lurralde Historikoko nekazaritza-ustiategietan inbertsioak egiteko eta nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzei (2019ko deialdia) buruzko abenduaren 18ko 177/2018 Foru Dekretuan ezarritako baldintza bereziak eta orokorrak betetzen ditu. Negutegia eraikitzeko laguntza eskatu du. Hauek dira xedeak: lurra atontzeko lanak, multitunela, ureztatze-sistema, biltegia, sarbideak eta elektrifikazioa.

1. Kalkulatu ezazu **ebaluazio-irizpideen puntuazio banakatua 4.1 neurriko** laguntzei dagokienez, enuntziatuan adierazitako premisak eta jarraian zehazten den datua kontuan hartuta: **1.8 PUNTU**

    - Espedienteko inbertsioaren tipologiaren arabera kalkulatutako puntuak: 6.25 puntu.

2. Kalkulatu ezazu alboetan zein goiko aldean plastiko malguko xafla duen multitunelari dagokion diru-laguntzaren zenbatekoa (kalkulu banakatua), eskabidearekin batera aurkeztutako proformako faktura hauek kontuan hartuta: **1.7 PUNTU**
    - Multitunelaren hornidura: proformako hiru faktura, zerga-oinarriaren zenbateko hauek dituztenak, BEZik gabe: 40.000 €, 35.510 € eta 38.510 €
    - Multitunela muntatzeko eskulan propioa: 3.500 €

3. **2015etik aurrera nekazaritza eta abeltzaintzari zuzeneko ordainketak zein laguntzeko bestelako araubideak aplikatzeari buruzko abenduaren 19ko 1075/2014 Errege Dekretuarekin bat etorrita: 1,5 PUNTU**
   a. Adieraz ezazu, labur, Josunek lor ditzakeen laguntzak, kontuan hartuta, batetik, garatuko duen jarduera, eta, bestetik, Erreserba Nazionalaren oinarrizko ordainketarako eskubideak eman dizkiotela. **PUNTU 1,0**

   b. Instalatu ondorengo kanpainan, auzokidearen ustiategia eskuratuko du, zeinak azienda hau duen: Okelatarako 8 behi, gizentzeko 6 txahal idisko, 50 ardi eta 8 ahuntz. Abere kopurua aintzat hartuta, abeltzaintzari lotutako zer laguntza jaso ahal izango du datorren urteko eskabidean? **PUNTU 0,5**